

BERMEO. Ikastaro batzuk garagarrilean emon dauz Etorkintzak

ONINTZA ENBEITA

Gazteentzako begirale ikastaroak eskainiko dauz Osasun eta Gizarte Ongizate Patronatuak.

Osasuna eta ongizatea zabaltzeko egitasmoak

Patronatuak hainbat formakuntza ikastaro eta programa egin dauz

Onintza Enbeita |

Bermeoko Osasun eta Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuak begirale ikastaroak antolatu dauz. Etorkintza izeneko taldeak garagarrilean emon eban 5 orduko ikastaroa. Formakuntza ikastaroak aisialdirako begiraleak eta droga-menpekotasunari aurre egiteko gazte bitartekariak trebatzeko antolatu ebezan alkarte horrek. Patronatuak be antzerako eskaini dauz ikastaroak garagarrilean. Ikastaroetan parte hartzen dabenak ongizatearen alde behar egiteko gertetan dabez.

Aurrerantzean be jarraituko dabe ikastaroak emoten. Iraile-rako ikastaroa antolatu dau Pa-

tronatuak, eta parte hartu gura dabenek bertara joan beharko dabe izena emoten edo informazino eske. Ikastaroak 15 ordukoak izango dira.

Zinea heziketarako tresna moduan erabiliko dabe

Datorren ikasturtean egitasmo berezia jarriko dabe martxan Bermeoko ikastetxeek. Osasun eta Gizarte Ongizaterako Patronatuak akordioa sinatu dau Eusko Jaurlaritzagaz, eta horri esker, zinea erabiliko dabe ikasleei osasunaren ganeko ohitura onak sartzeko.

Irudi Biziak izeneko enpresea arduratuko da *Irakaskuntzan zineagaz baliatuta, osasunaren aldeko heziketa lantzeko progra-*

mea izeneko egitasmoa garatzeagaz.

Bermeoko ikastetxe guztiek izango dabe proiektuan parte hartzeko aukerea. Eusko Jaurlaritza eta Osasun Patronatuaren arteko hitzarmena izan arren, Udalak be diru laguntzea emongo dau programarako. Guztira, 350.000 pezeta inguruko laguntzea emotea onartu dau kostaldeko Udalak.

Programearen bitartez, osasunaren ganeko ohiturak irakatsiko jakez ikasleei: zer eta zenbat jan behar dan momentu bakotxean, kirola egitearen garrantzitsua dala, gure gorputzaren erreakzino batzuen aurrean derrigorra dala medikuarengana joatea...

ERRIGOITI. Denporea daroe, dekretuak dirala eta, alkateagaz eztabaidan

«Eritxia emotea galazota» daukiela eta, oposizinoak alde egin eban batzar aretotik

Onintza Enbeita |

Errigoitiko Batasunak eta EAK eztabaidak izan dabez alkateagaz dekretuak dirala eta. Alkateak hartu beharreko erabagiak diran arren, talde bi horreetako zinegotziek dekretuen ganeko eritxia emoteko aukerarik be ez daukiela salatu dabe.

Dana dala, ohiko udalbatzarretako gai zerrendan sartu be-

har izaten dira dekretuak. Errigoitin, baina, ezohikoetan sartzen dira. «Alkateak salto egiten dauz ohiko bilkurak; legeak agintzen dauen baino luzarago egoten gara bilkurarik egin barik, eta gura dauenean deitzen dauz», azaldu dabe zinegotziek. «Gero, galarazo egiten deusku dekretuen ganeko eritxia emotea be», esan eben zinegotziek. Horixe jazo zan bari-

kuan be. Dekretuen atala heldu zanean, alkateak, txostenak banandu ebazan eta aurrera egiteko asmoa agertu eban. Batasuna eta EA euren eritxia emotera joazala, alkateak ez eutsen itxi txostenetan azalduta egozalako dekretuak. «Gure eritxiak balio ez badau, guk ez dogu udalbatzarrean ezer egiten, horrexegaitik urten genduan pleno aretotik», azaldu dabe zinegotziek.

LABURREAN

GERNIKA-LUMO

Salneurrietan ezelango barrikuntza barik amaitu dau plazeak udako lehenengo hilabetea

Atzo mogimendu gitxi ikusi zan plazako salneurrietan. Lehen-go asteleheneko moduan jarraitzen dau generorik gehienak: tomate kiloa 400 eta 500 pezetaren artean, letxuga bakotxa 65 pezeta, patata kiloa 65 eta 100 pezetaren artean, piper berde dozena 90 pezeta, erretako piperren kiloa 300 eta 500 pezetaren artean tamainuaren arabera eta baina kiloa 300 pezeta. Hori bai, jente asko eta asko ibili da azkenengo hilean plazan. Martiko astelehenetako aldean, asko saltzen da udan. Baserri-tarrek horixe dinoe behintzat: «Jente asko egonera, mustur asko ikusi behar izaten dogu, baina saldu be, gehiago saltzen dogu garagarritik urrira, zemenditik martira baino».

GERNIKA-LUMO

Abuztuaren 5ean helduko da emakumeen tourra herrira

Abuztuaren 5ean hasiko da aurtongo emakumezkoen tourra. Bilbon hasi eta Parisen amaituko da andren txirrindulari lasterketa nagusia. Lehenengo etapearen azkenengo kilometroak eta helmugea Gernikan egin beharko dabez txirrindularriek. Aurretik, baina, Busturialdeko hainbat herriatik pasauko dira andra txirrindulariak: Muxikan, Ajangizen, Arratzun, Mendatan, Nabarnizen, Ereñon, Ibarangelun eta Gautegiz-Arteagan. Arratsaldeko 18:32an helduko da etapea helmugara.

GERNIKA-LUMO

Angeles Ekizaren erakusketea zabalduko dabe barikuan

Datorren barikuan zabalduko dau Angeles Ekizak bere akuarela erakusketea, Euskadiko Kutxaren aretoan. Abuztuaren 8a arte egongo da erakusketea Gernika-Lumoko Fernando Abaunza kaleko aretoan (Eroski zaharra egoan lekuaren aurrez-aurre).

Astelehenetik barikura arratsaldeko 19:00etatik iluntzeko 21:00etara egoten da zabalik erakusketea aretoa. Jai egunetan, barriz, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Kutxak berak antolatu dau erakusketea.

MUXIKA

Datorren eguna zortzi San Roman eguna ospatuko dabe muxikarrek urteroko moduan

Programea laburtu egin dabe, baina ekitaldiz beterik dagoz aurtongo San Roman jaiak. Lehen hiru jai egun izaten ziran, baina aurtun egun bakarrera laburtu dabe jaiak. Abuztuaren 8an makailadea egingo dabe San Roman landetan. Hurrengo egunean danetarik izango da San Romanen. Goizean mezea egongo da, eta ostean, urteroko moduan Ibarruriko Baso-Txoritxu dantzari taldearen dantzaldia izango da. Bitartean, koadrilak tortillak egin ahalean ibiliko dira. Izan be, tzapelketea dago, eta 13:30erako aurkeztu beharko dabez tortillak epaimahaiaren aurrean. Arratsaldean zaleen txirrindulari itzulia izango da eta gauean, oster, Alaitz eta Maider eta Sen taldeen erromeria.

AGENDEA**MUXIKA**

Pospolin tiradea: Gaur arratsaldeko 17:00etan Urrutxuko landetan. Urrutxu eta Albizko jai batzordeak antolatuta. Batzordea ez da jazo leikezan ez beharren jabe egingo.

FORUA

San Inazio jaiak: Gaur goizeko 10:00etan kalejireia herriko txistulariakaz. Eguerdiko 12:00etan mezea. Ostean, Busturialdeko Erregelak Urdaibai dantzari taldearen eskutik. Dantzarien ostean, 13:30ak inguruan, Mieltxo Saralegi harrijasotzailearen eta trontzalarien erakustaldia. Arratsaldeko 19:00etan

Foruko Urdaibai eta Txinako Dinastia Imperial de Tangxiang dantzari taldeen agerraldia. Gaueko 22:00etan elizeari buelte urteroko moduan eta makailadea.

BERMEO

Kontzertua: Barikuan Comision taldea izango da Lameran arratsaldeko 20:30ean. Alegria Para Cristo aisialdi taldeak antolatu dau kontzertua.

Nazioarteko musika astea: Zapatu gaueko 22:00etan Oreka Tx taldea izango da Lameran.

GERNIKA-LUMO

Erakusketea: Elai-Alai aretoan zabalik dago azken 25 urteetan Gernikako Andra Mari eta San Roke jaietan izandako kartelen erakusketea.